



JAUN/ANDRE HORI:

EXCMOIA. SR.ÍA:

Lehendakariak emandako jarraibideen arabera, eta Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 8.g) eta 20.1 artikuluekin bat etorritz, Gasteizen, Lehendakaritzako egoitzan, **2025eko APIRILAREN 29an**, 09:00etan, egingo den bilerarako dei egiten dizut. Honako hau izango da

De conformidad con las instrucciones recibidas del Lehendakari, al amparo de los artículos 8.g) y 20.1 de la Ley 7/1981, de 30 de junio, de Gobierno, le convoco a la reunión que se celebrará en Vitoria-Gasteiz, en la sede de Lehendakaritza, a las 09:00 horas del día **29 DE ABRIL DE 2025**, con el siguiente

GAI-ZERRENDA

ORDEN DEL DÍA

Aurreko bileraren akta irakurri, eta, hala badagokio, onartzea.

1

Lectura y, en su caso, aprobación del Acta de la sesión anterior.

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE
CULTURA Y POLÍTICA
LINGÜÍSTICA

Dekretu-proiektua, Euskal
Autonomia Erkidegoko Kultura
Ondasun Immaterialen
Inbentarioarena.

2

Proyecto de Decreto de Inventario de la Comunidad Autónoma del País Vasco de Bienes Culturales Inmateriales.



- | | | |
|--|---|---|
| <p>Erabaki-proposamena, 5.000.000 eurotik gorako gastua baimentzekoa, dirulaguntzen deialdi hau finantzatzeko: egunero informazioa ematen duten komunikabide profesional akreditatuentzakoak, zabaltzen dituzten edukiak sortzean, lantzean eta argitaratzean adimen artifizial sortzaileak duen eragin negatiboa minimizatzeko.</p> | 3 | <p>Propuesta de Acuerdo de autorización de un gasto superior a 5.000.000 de euros, para financiar la convocatoria de subvenciones para medios de comunicación diarios profesionales acreditados, para minimizar el impacto negativo de la inteligencia artificial generativa en la creación, elaboración y publicación de contenidos que difunden.</p> |
| <p>Erabaki-proposamena, Arte Ederren Bilboko Museoa Fundazioa salbuestekoa, 2025. urteko aurrekontuetan esleitu zaion dirulaguntza izendun bat jasotzeko berme erreala eratu beharrik ez izateko.</p> | 4 | <p>Propuesta de Acuerdo de exoneración a la Fundación Museo Bellas Artes de Bilbao de constituir garantía real respecto a la subvención nominativamente asignada en los presupuestos generales del ejercicio 2025.</p> |
| <p>EKONOMIA, LAN ETA ENPLEGU SAILA</p> | | <p>DEPARTAMENTO DE ECONOMÍA, TRABAJO Y EMPLEO</p> |
| <p>Dekretu-proiektua, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuak onartzekoak.</p> | 5 | <p>Proyecto de Decreto por el que se aprueban los estatutos de Lanbide-Servicio Público Vasco de Empleo.</p> |
| <p>Erabaki-proposamena, baimena emateko Estatistikako Institutu Nazionalaren eta Eustat-Euskal Estatistika Erakundearen arteko lankidetzaren hitzarmena sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoan etxerik gabe daudenei arreta emateko zentro eta zerbitzuen 2024 inkesta egiteko.</p> | 6 | <p>Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración entre el Instituto Nacional de Estadística y el Eustat-Instituto Vasco de Estadística, para la realización de la Encuesta de centros y servicios de atención a las personas sin hogar 2024 en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma de Euskadi.</p> |



Erabaki-proposamena, hainbat erakunderi zuzeneko dirulaguntzak ematekoa, proiektu esperimentalen jarraipena egiteko. Proiektuok 2023ko ekainaren 27ko Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren bitartez onartu ziren, Inklusiorako V. Euskal Planaren helburuak ezartzeko 2023-2024 Plan Operatiboaren parte izanik inklusioaren eremuan lan egiten duten instituzio publikoek eta irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuek sustatuta.

OGASUN ETA FINANTZA
SAILA

Dekretu-proiektua, 7111 Programan (Nekazaritza eta Landaren eta Itsasertzaren Garapena) 7.391.773,93 euroko kredituak gaitzekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2025eko ekitaldiko aurrekontuko 9311 Programako (Europar Batasunarekiko Finantza Harremanak) diru-sarrerak direla eta.

Erabaki-proposamena, kreditu globala diruzaintzako gerakinen kontura zabaltzekoa, Etxebizitza eta Hiri Agenda Sailak 2025eko ekitaldian dituen kreditu-beharrei erantzuteko, hiria berroneratzeko hainbat proiektu finantzatzeko aldera. Zenbatekoa: 4.000.000 euro.

Erabaki-proposamena, eLankidetzaren Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentzia erakunde publikoaren etorkizuneko konpromisoak gehitzeko.

7 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a diversas entidades, para la continuidad de los proyectos experimentales, aprobados por Acuerdo de Consejo de Gobierno del 27 de junio de 2023, promovidos por instituciones públicas y entidades privadas sin ánimo de lucro dedicadas a la inclusión, que forman parte del Plan Operativo 2023/2024 para la implementación de los objetivos del V Plan Vasco de Inclusión.

DEPARTAMENTO DE
HACIENDA Y FINANZAS

8 Proyecto de Decreto por el que se habilitan créditos en el Programa 7111 - Agricultura y Desarrollo Rural y Litoral, por ingresos en el Programa 9311 - Relaciones Financieras con la Unión Europea, del Presupuesto de la Administración de la Comunidad Autónoma de Euskadi para el ejercicio 2025, por importe de 7.391.773,93 euros.

9 Propuesta de Acuerdo de ampliación de Crédito Global con cargo a Remanentes de Tesorería, para atender las necesidades crediticias del Departamento de Vivienda y Agenda Urbana en el ejercicio 2025, al objeto de financiar diversos proyectos de regeneración urbana por importe total de 4.000.000 euros.

10 Propuesta de Acuerdo sobre aumento de compromisos futuros del Ente Público eLankidetzaren Agentzia Vasca de Cooperación y Solidaridad.



GOBERNANTZA,
ADMINISTRAZIO DIGITAL
ETA AUTOGOBERNUAREN
SAILA

DEPARTAMENTO DE
GOBERNANZA,
ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y
AUTOGOBIERNO

Eduki ekonomikoa duten agindu eta ebazpenen zerrenda eta dirulaguntzen plan estrategikoen zerrenda, Gobernu Kontseilua jakinaren gainean egon dadin.

11 Relación de órdenes y resoluciones con contenido económico y Planes estratégicos de subvenciones para conocimiento del Consejo de Gobierno.

ETXEBIZITZA ETA HIRI
AGENDA SAILA

DEPARTAMENTO DE
VIVIENDA Y AGENDA
URBANA

Erabaki-proposamena, baimena emateko Oyón-Oiongo Udalarekin lankidetzaz hitzarmena izenpetzeko, Oiongo udalerriko SAUR 1eko RC-A lurzatian alokairuko babes sozialeko etxebizitzak sustatzeko.

12 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de un convenio de colaboración con el Ayuntamiento de Oyón-Oion, para la promoción de viviendas de protección social en régimen de alquiler en la parcela RC-A del SAUR. 1, en el municipio de Oyón-Oion.

Erabaki-proposamena, baimena emateko Soraluze-Placencia de las Armas udalarekin 2021eko maiatzaren 24an izenpetutako hitzarmena luzatzeko. Hitzarmen horren helburua da Soraluze-Placencia de las Armas udal-mugaratean babes sozialeko etxebizitzak sustatzea.

13 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la prórroga del Convenio suscrito, el 24 de mayo de 2021, con el Ayuntamiento de Soraluze-Placencia de las Armas, para posibilitar una promoción de viviendas de protección social en el término municipal de Soraluze-Placencia de las Armas.

Erabaki-proposamena, baimena ematekoa Estatuko Administrazio Orokorraren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren arteko 2021eko maiatzaren 17ko hitzarmenaren luzapena sinatzeko, Euskal Autonomia Erkidegoa Kartografia Sistema Nazionalan sartzeko.

14 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la suscripción de la prórroga del Convenio suscrito, el 17 de mayo de 2021, con la Administración General del Estado, por el que la Comunidad Autónoma de Euskadi se integra en el Sistema Cartográfico Nacional.



Erabaki-proposamena, Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 27ko Erabakia aldatzekoa. Erabaki horren bidez, Bilboko udalari zuzeneko dirulaguntza eman zitzaion Uretamendi auzoan hiriberroneratze integraleko jarduketak egiteko.

Erabaki-proposamena, Gobernu Kontseiluaren 2022ko abenduaren 27ko Erabakia aldatzekoa. Erabaki horren bidez, zuzeneko dirulaguntza eman zitzaion Arrasateko udalari, Santa Teresa-Donoztebe auzoko hiriberroneratze integraleko jarduketak egiteko.

MUGIKORTASUN
JASANGARRIAREN SAILA

Erabaki-proposamena, baimena emateko jabari publikotik desafektatzeko honako bi lurzerrenda hauek, Zarauzko geltoki berriaren inguruan trenbideari atxikita daudenak: 1.377,00 m²-koa bat eta 1.375,00 m²-koa bestea, Bilbo - Donostia linearen 85+580 - 85+700 kp bitartean eta 85+550 - 85+855 kp bitartean daudenak.

JUSTIZIA ETA GIZA
ESKUBIDEEN SAILA

Erabaki-proposamena, Juezas y Jueces para la Democracia Elkarteari zuzeneko dirulaguntza ematekoa, "Kontsumitzaileen defentsa kolektiboa" jardunaldia egiteko, Bilbon.

15 Propuesta de Acuerdo por el que se modifica el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 27 de diciembre de 2022, por el que se concede una subvención directa al Ayuntamiento de Bilbao, para actuaciones de regeneración urbana integral en el barrio de Uretamendi.

16 Propuesta de Acuerdo por el que se modifica el Acuerdo de Consejo de Gobierno de 27 de diciembre de 2022, por el que se concede una subvención directa al Ayuntamiento de Arrasate, para actuaciones de regeneración urbana integral en el barrio de Santa Teresa-Donoztebe, en el municipio de Arrasate.

DEPARTAMENTO DE
MOVILIDAD SOSTENIBLE

17 Propuesta de Acuerdo por el que se autoriza la desafectación del dominio público de unas franjas de terreno de 1.377,00 m² y 1.375,00 m², en las proximidades de la nueva estación de Zarautz, situadas entre los p.k. 85+580 y 85+700 y 85+550 y 85+855 de la línea Bilbao-Donostia, en el término municipal de Zarautz, adscrita al ferrocarril.

DEPARTAMENTO DE
JUSTICIA Y DERECHOS
HUMANOS

18 Propuesta de Acuerdo de concesión de una subvención directa a la Asociación Juezas y Jueces para la Democracia, para la realización de la jornada "Defensa colectiva de las personas consumidoras", que se celebra en Bilbao.



IZENDAPENAK ETA KARGU-
KENTZEAK
LEGE BILTZAR- EKIMENAK

NOMBRAMIENTOS Y CESES
INICIATIVAS PARLAMENTARIAS

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 24an.

En Vitoria-Gasteiz, 24 de abril de 2025.

**IZPTA./Fdo.: UBARRECHENA CID, MARIA.
GOBERNANTZA, ADMINISTRAZIO DIGITAL ETA AUTOGOBERNUKO SAILBURU,
JAURLARITZAREN IDAZKARI ETA BOZERAMAILEA
CONSEJERA DE GOBERNANZA, ADMINISTRACIÓN DIGITAL Y AUTOGOBIERNO,
SECRETARIA Y PORTAVOZ DEL GOBIERNO**